

URRETXU-ZUMARRAGA / Irakurle taldearekin hitzordua gaur

Urretxu-Zumarragako euskarazko irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko zazpigarren bilkura egingo du gaur, asteartean, hilak 12, arratsaldeko 19:00etan, Urretxuko liburutegian.

Gaurko saioan Xabier Montoiaren 'Gasteizko hondartzak' liburua izango da aztergai. Liburu honetan Gasteiz hiriaren historia, bere biztanleena, bertan bizi izan direnen bizipen pilaketa aurkituko dituzu. Gerra zibila bukatu eta gaur egun arteko urteak. Militarrez eta apaizez jositako hiritxoari industriaren etorrerak eragindako aldaketak.

Xabier Montoia 1955eko irailaren 24an jaio zen Gasteizen. Euskal idazle emankorra eta baita musikaria ere. Hertzainak izan zen Montoiaren lehen rock taldea. Taldeko abeslaria izateko euskara ikasi zuen eta ondoren M-ak taldean, bakarka aritutakoa da.

Musikan ez ezik literaturan era nabarmendu da. Ugariak eta goraipatuak izan dira karrikaratu dituen eleberri, ipuin nahiz poesia liburuak. 2007an Euskadi Literatura Saria irabazi zuen, Euskal Hiria sutan (Elkar) ipuin liburuarekin.

Bihar 'Zomorroak' ipuin kontaketa Urretxuko liburutegian

Zumarraga eta Urretxuko Udalek antolatuta, bihar arratsaldeko 17:00etan ipuin kontalari egongo da Urretxuko liburutegian. Zurrumurru taldeak 'Zomorroak' aurkezten digu oraingo honetan, hau 5 urtetik 9 urte arteko haurrentzat zuzenduta dagoelarik. Leku muga dela eta aldez aurretik gonbidapenak hartu beharko dira arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean Urretxuko liburutegian. Ekintzak irauten duen bitartean liburutegia itxita egongo da. Ipuin honetan, "Zomorro eta animaliak protagonista dituzten ipuinak abiapuntutzat hartuz, bizikidetzarako ezagutza eta orokorrean eskura ditugun baliabideak elkarbanatzea zein garrantzi-tsua den nabarmenduko da", azaltzen dute Zurrumurru taldekoek.